



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2008-09-27**

VI.URTEA 1.519.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**GARIKOITZ ALTUNA ETA IMANOL ALTUNA** ERREMONTISTAK

## «Biharko partida berezia izango da, ez dugu inoiz herrian jokatu»

**AMEZKETA** Herritarrek omenaldia egingo diete Altuna anaiei: partida jokatuko dute, ondoren, bazkaria izango da

**PILOTALEKUA** Ergone pilotalekua zena ere inauguratuko dute biharko omenaldian; Altuna Anaiek izena jarri diote 7



N. URBIZU

## Bisitariak %18 igo dira iazko datuekin alderatuta

**TOLOSA** 2.575 lagunek bisitatu dute eskualdea 2

**ANTONIO ALUSTIZA**  
4. ARDI TXAKUR LEHIAKETAN

«Hutsegite txiki-handi bat izan nuen Euskal Herrikoan»

**ARESO** Txiki 5 urteko txakurrarekin aritu zen; asteburuan Oñatin izango da 5

**Irigoien eta Izeta II. harri-jasotzaileek guztia prest apustuaren bezperan**

**TOLOSA** Bien aldeko apustuak parekatu daude 3

**943 671 427**

estabimenduak ezinbestekoak: 10 denarik 10 denarik  
jarraitzen dituzte: 10 denarik 10 denarik

**Beti alai jatekoa**

**Garaian garaiko janariak**  
**Arraikietan berezia**

Tel.: 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

**SORONEA**  
denda ekologikoak antolatuta

**SUKALDARITZA**  
makrobiotiko ko  
ikastaro teoriko-praktikoa

Zure elikadura zainduz, zure osasuna hobetzeko.

**Amayo Tolosa** Iztuetaren eskutik.

Soronea denda ekologikoan kontsulta  
Letxuga kalea, 8 • Tolosa • Tel.: 943 01 68 68

# 2.575 bisitari izan ditu eskualdeak udan, iaz baino %18 gehiago

**Turismoa** » Uztailean euskaldunek bisitatu gaituzte gehien, eta abuztuan, berriz, kataluniarrek.

## INIGO TERRADILLOS

Geroz eta gehiago dira gure eskualdera gerturatzeko direnak, egun pasa eginez, bertako puntu esanguratsuenak ezagutzeko asmoz edota egun batzuk gurean igaroz, lasaitasun bila datozenak. Hala adierazten dute datuek, izan ere, iazkoekin alderatuta, Tolosaldera etorri direnen bisitari kopurua nabarmen igo dela ikus daiteke, %18, hain zuzen ere.

Guztira, 2.575 bisitari izan dira uztailean eta abuztuan Tolosaldea Tour eskualdeko turismo bulegotik igaro direnak informazio bila. Azken honetan, hau da, abuztuan, izan dira gehien, 1.724, hain zuzen ere. Uztailean, berriz, 851 izan ziren. Bi hilabeteetan izan du gorakada, pasa den urtean, uztailean 717 izan baitziren bisitariak, eta abuztuan, berriz, 1.456 turista gerturatu ziren Tolosara nahiz inguruko herrietara.

## Euskaldun gehiago uztailean

Jatorriari erreparatzen badiogu, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek izan dira gehiengo uztailean, 597, hain zuzen. Kasu honetan gehikuntza nabaria da pasaden urtetik, 220 izan baitziren EAetik gurera etorritakoak.

Espainiatik etorritakoak izan ziren iaz gehiengo uztailean, 299 bisitarirekin, baina aurreko beherkada nabaritu da lurralde horretatik etorritakoen artean, 194 izan direlarik. Beste lurraldeetatik etorritakoen artean ere beherkada txiki bat nabaritu da, iaz 198 izan baziren aurreko 143 izan direlako.

## Abuztuan orokorrean bisitari kopuruaren gorakada

Uztailean ez bezala, abuztuan igotera orokorra izan da. Iaz bezala, Espainiatik eta Herrialde Katalanetatik etorritakoak izan dira gehiengo, 1.137. Pasa den urtean ere gehiengo izan ziren, 898. Beste lurraldeetatik etorritakoak dira bigarren postuan kokatu behar direnak, 429 bisitarirekin. Iaz 294 izan ziren, beraz, igoera ere nabarmen zitekeoa izan da. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek daude hirugarren postuan,



Jose Luis Urdangarin eta Olatz Illarregi. I. TERRADILLOS

394 bisitarirekin, iaz baino 130 gehiago.

## Gipuzkoarrak gehiengo

Euskaldunen bisitari kopurua bikoiztu egin dela gurean esan daiteke, eta denen artean, Gipuzkoatik etorriak dira nabarmen direnak. Euren atzetik bizkaitarrak daude. Dirudienez, aurreko kanporatze oporraldien egun kopurua gutxitzea erabaki dute askok, eta horregatik areagotu egin dira

eguneko txangoak, tolosaldea horretarako helburuetako bat izan delarik.

## Kataluniarren bisitak gehienbat

Bestalde Euskal Herriatik at datuzenei erreparatuz gero, eta Herrialde Katalanak eta Espainia kontuan hartuta, kataluniarrek dira nabarmen gehiengo, eta madrildarrak eta valentziarrak daude hauen atzetik. Aipatzekoa da az-

ken hauen igoera abuztuan, madrildarrak baino gehiago izan zirelarik hilabete horretan.

## Frantses ugari gurean

Beste lurraldeetako herritarretan, berriz, frantsesak nabarmen diren dira, uztailean 68 eta abuztuan 236 izan direlarik. Hauen atzetik Holandatik eta Iberoamerikatik etorriak kokatu behar ditugu. Azken hauen kasuan, familiarren jatorria ezagutzeko bultzaturik etorri dira asko.

Bestalde, beste lekuetan joera bestelakoa izan bada ere, okupazioari dagokionez, %6 igo da iazko datuekin konparatuta eskualdean.

## Bisita gidatuak nahiago

Gorrotxategi Konfiteri museoa, Aranburu jauregiko erakusketak eta Alde Zaharra izan dira aukeretakozko batzuk udan bisitatzeko. Hala, turistek nahiago izan dute bisita gidatuan joatea, euren kabuz baino. Bestalde, aurtengo berrikuntza Babarrunaren Ibilbidea izan da, eskualdeko *altorra* gertutik ezagutzeko aukera dagoelarik.

## «Indarra hartzen ari da»

Tolosaldea Garatzenetik azaldu dutenaren arabera, «oso gustura gaude datuekin. Tolosaldea indarra hartzen ari da barrualdeko turismoan, eta orain gainera, Goierriekin elkarlanean ariko garenez, eskaintza zabalagoa izango dugu jendeari eskaintzeko».

# Hodei Truk gazte abesbatzak ikasturte berriari ekingo dio

**Tolosa** » Datorren astelehenean izango dute lehenengo entsegu irekia, 18:00etatik aurrera, euren lokalean.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Hodei Truk gazte abesbatzakoak lanean hasteko prest dira berriro ere, izan ere, datorren astelehenean ekingo diete ikasturte berriari.

Abesbatzako arduradunek azaldu bezala, «Hodei Truk abesba-



Hodei Truk abesbatzako kideak Mallorcan. HITZA

tzak 21 urteko ibilbidea du, eta beti ilusioz beteta eta betiere proiektu berriak egiteko gogoz aritu gara». halaber, urtero egiten dute irteera bat kanpora. «Esaterako, 2007an, Mallorcara joan ginen eta 2008an Torreviejako habaneren lehiaketara. Edonork ikus dezake beraien emanaldi horietako bat Interneteko Youtube orrian.

Esan bezala, astelehenean, hilaren 29an hasiko dute ikasturtea, jende berriari irekia egingo den entseguarekin. 18:00etatik 19:30era izango dira astelehenero entseguak Nafarroako Etorbideko lokalean. Bigarren hizkuntza eta batxilergoko gazteei zuzendutako dago deialdia.

Zalantzak argitzeko edo informazio gehiagorako 649 70 12 51 (David) zembakira dei daiteke.

# Larunbat gaueko zine emanaldiak 22:30ean izango dira, eta ez 22:00etan

## ERREDAKZIOA

Tolosako Udako Kultura sailetik adierazi dutenez, akats bat izan dute larunbat gaueko Leidor aretoko zine emanaldia iragartzera koan. 22:00etan izango dela iragarri dute eskuorrietan, baina azaldu dutenez, «larunbat gaueko ohiko ordutegia mantenduko dugu, eta zine proiektzioa 22:30ean izango da gaur, eta aurrerantzeko saioetan.

## U Urteurrena

### I. urteurrena JAZINTO ARAMENDI MENDIA

2007ko irailaren 20an hil zen, Bidegoianen

Bidani herrian sortua eta bertan hazia gainera, baserrigintzan eta bizitzan alaita izan zen bera. Familiako eta lagunak zutaz oroitzen gera, egunsentia datorrenero Bidegoianetik behera.

Bihar, igandea, goizeko 11:00etan, Bidaniako San Bartolome elizan meza izango da bere alde. Aurrez, eskerrak guztioi.

Helbidea: Betelu Galkoa baserria, Bidegoian.



BIDEGOIANEN  
2008ko  
irailaren 27

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak.  
Kale Nagusian, Araba etorbidean eta Martin Jose Iraola kalean.  
Salgai (Legorreta eta Iruan). Etxebizitza eraberritzeko.  
Salgai, Garajeak.  
San Frantzisko eta Amarotzen (Tolosa) eta Idoagian (Ibarra).  
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.  
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza San Frantziskon eta Estrella eraikuntzan.  
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Batxilergo Zaldibian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16



Elkarrean antolatutako lehen ekintza, Mendikuterako txangoa izan zen. HITZA

## Lehen auzo bazkaria ospatuko da urriaren 11n, Urkizun

**Aisia** » Egun honetan aurkeztuko dute Alurtxiki auzo elkarte; bertan parte hartu nahi dutenek, oraindik ere aukera dute.

### E. EZEIZA

Alurtxiki Urkizuko auzo elkarte berriak antolatuta, auzo bazkaria antolatu dute urriaren 11rako. Gainera, egun honetan bertan aurkeztuko dute jendartearen elkarte berria. Bestalde, *Berpiztu* plana aurrera eramateko asmoz, Tolosako Udaleko ordezkariak eta Urkizuko elkarte hitzarmen bat sinatuko dute.

Urte honen hasieran jarri zen martxan *Berpiztu* egitasmoa Tolosako hiru auzotan: Aldaba, Bedaio eta Urkizun hain zuzen ere. Eki-men hau aurrera eramateko asmoz, maiatza aldera hasi ziren urkizukoak lehendabiziko ekintzak antolatzen. Hasteko, Mendikutera txangoa egin zuten, eta auzotarraren erantzun ona jaso zuten.

Orain, hurrengo hilabetei begira beste hainbat egitasmo dituzte buruan. Baina ikasturtea hasteko, lehendabizikoa urriaren 11koa izango da. Bazkari horretara, Albizturko goiko baserrietakoak, Auzo txikikoak eta Urkizuko bizilagunak daude gonbidatuta. Orain bertan bizi direnak, nahiz bizi izan direnak.

Bazkaria antolatzearen arrazoiak bat da, Auzotxiki Auzo elkartearen sorreraren ospakizuna da. Baita, honen aurkezpena eta helburuak adieraztea ere.

Ekitaldian parte hartu nahi dutenek 652 70 96 80 telefono zenbakira deituta egin dezakete. Interesatuentzat, izena emateko azken eguna urriaren 3a izango da. Bazkariaren prezioa 25 eurokoa da helduentzat, eta 15 eurokoa, umeentzat. Elkarteak jendearren erantzun ona espero dute, eta 100 lagun inguru bilduko direla aurreikusten dute. Bazkaltzeko, karpaxto bat egokituko dute auzoaren erdigunean.



## Sorospen eskolak, gazteentzat

**INGURUMENA** » Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela eta, hainbat ekimen gauzatu dituzte aste honetan zehar Tolosako ikastetxeetako ikasleek. Azkena atzo arratsaldekoa izan zen. Gurutze Gorrikoen eskutik lehen sorospen ikastaroa jaso zuten Topagunean. Egitasmo honen helburuetako bat da, ingurumena zaintzearen beharraz sentsibilizatzea. E. EZEIZA



Bihar, aurrez aurre izango dira Aimar Irigoien errejidarra eta Jose Ramon Iruetagoiena aiarra. E. EZEIZA

## Irigoien edo Izeta II.a, bihar ikusiko da harria zein aldetara erortzen den

**Kirolak** » 12:00etan ekingo diote, Zezen-plazan bi harri-jasotzaileek demari; 1.500 sarrera saldu dira dagoeneko.

### ESTIEZEIZA

Irigoien edo Izeta II.a, Izeta II.a edo Irigoien, noren alde egin behar da apustu? Egun hauetan, jende asko egiten ari den galdera da, baina bihar eguerdian jakingo da erantzuna.

12:00etan hasiko da bi harri-jasotzaile hauen arteko lehia, baina ordu bat lehenagorako egin dute beraiek hitzordua. Izan ere, 11:00etan elkartuko dira biak, harriak pisatzeko asmoz. Harriek 137,5 kiloko pisua izan behar dute. Ondoren, zozketa egingo da. Bertan erabakiko da zein hasiko den lehendabizi harria altxatzen. Bi egin behar hauen ostean, 12:00etan puntuan, lehendabiziko harri-jasotzailea hasiko da bere lana egiten. Honek, 10 minutuko

hiru txandatan, ahalik eta gehienetan harria bizkarreratzen saiatu beharko du. Txandatik txandara bost minutuko atsedendialdi egin ahal izango ditu. Hala, lehenak bukatutakoan, aurkariaren txanda izango da. Ordu bat eta 25 minutu inguru iraungo du saioak. Antolatzaileran esanetan, «zorrotzak» izango baitira denborari dagokionean.

Dena den, festa ez da zezen plazan amaituko, galdu edo irabazi, bakoitzak bere lagun, ahaide eta ingurukoekin ospatuko baitu. Bientzat ere azken bost hilabeteak gogorak izan dira, eta egindako lan gogoraren emaitza ospatzeko bidea izango da hori.

Aimar Irigoienaren aldekoak Urrietako Oianume jatetxean bilduko dira. Bertan, trikitixa, bertolariak, eta musika izango dira bazkalosteak alaitzeko. Patxi Jauregi antolatzailerak esandakoaren arabera, «250 lagun inguruk eman dute izena dagoeneko, baina oraindik ere aukera badago joetelana egiten. Honek, 10 minutuko

goienaren aldekoak, Aiako Izeta jatetxean elkartuko dira.

### Ikusmin handia sortu duen dema

1.500 sarrera inguru saldu dituzte oraingoz igandearako. Baina oraindik ere aukera badago erosteko. Bihar bertan, ekitaldia hasi baino lehen zezen plazako lehiatiletan eskuratu ahal izango dira.

Tolosako Kantabriko tabernan hitzartu zen apustua, eta egun hauetan, toki honetan bertan, jendearren joan-etorri handia nabaria izan da. Batzuk, zuzenean, apustu jakin bat egiteko asmoz sartzen ziren, beste batzuk berriz, ikustera bertan bizi den giroa.

Orain, apustuak makina bidez egiten badira ere, ohitura erabat ez galtzeko, Tomas Armendarizengana (Kantabriko nagusia) jotzen dute galdezka eta aholku eske. Armendarizen esanetan, «hasieran jende gehiena harri-jasotzaile gaztearen alde apustu egitera erortzen zen, baina orain, gauzak parekatuz doaz».

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**

**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## Zizurkilgo VII. Zaldi Lasterketa jokoan, bihar

**Zizurkil** » Guztira 18 parte-hartzaile izango dira, orain arteko kopuru handiena; tartean eskualdeko zaldunak izango dira.



lazko lasterketaren momentu bat. J. AZKUE

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo VII. Zaldi Lasterketa egingo dute bihar udaletxearen ondoko zelaian, 18:00etan. Ikusmin handia sortzen du lasterketa honek eta aurten gainera 18 zaldik parte hartuko dute, orain arteko kopuru handiena. Asier Mujika antolatzaileak azaltzen duenez, «zirkuitua azkarra da eta zaldiek abiadura handia hartzen dute. Horrek erakargarritasuna ematen dio lasterketari».

Mujikak gaineratzen duenez, urtero maila «gero eta handiagoa» da eta aurten zaldi odolgarbi ingeles gehiago izango dira Zizurkilgo zirkuituan. «Odolgarbi ingelesa lasterketarako prestatuta dagoen zaldia da, normalean hipodromotako lasterketarako erabiltzen

dena», zehazten du Mujikak. Bihar eskualdeko zaldunak ere izango dira. Baieztatuta daudenak Asier Mujika zizurkildarra, Iñaki Garmendia orendaindarra, Jon Lizaso asteasuarra eta Joxe Ramon Usabiaga asteasuarra dira. Emakumezko zaldunak ere izango dira parte hartzen.

Zirkuituak 300 metro inguru ditu eta proba bakoitzean 5 itzuli emango dituzte. Hiru finalaurreko

egingo dira, bakoitzean eta bakoitzean sei zaldik parte hartuko dute. Bi sailkatuko dira finalerako eta finalen ere bost itzuli emango dizkiote zirkuituari.

Azken bi urteetan proba irabazi duen Josu Castañares elgoibartarrak parte hartuko du aurten ere eta bera izango da faboritoetako bat. Irabazleak 300 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta hirugarrenak 100 euro.

## Zaharberritzea eta arte aplikatuak, egur lanketa eta pintura Sacemen

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak kultur ikastaroak antolatu ditu Sacemen. Bertan egur lanketa, pintura eta zaharberritze eta arte aplikatuak ikastaroa egingo dituzte. Ikastaroetan izena emateko epea urriaren 31n amaitzean da eta 943 69 16 55 edo 943 69 21 00 zenbakietara deituta egin daiteke. Halere, kontuan izan behar da ikastaroak lehenago hasi-kidirela.

Egur lanketaren ikastaroa urriaren 6an hasiko da eta astelehenean izango da 15:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 21:00etara. Urteko kuota 140 eurokoa da.

Pintura ikastaroari dagokionez, helduek asteazkenetan, 16:00etatik 18:00etara edo 18:00etatik 20:00etara izango dute ordutegia. Haurren ordutegia zabalagoa da: asteartean, 17:15-18:15 eta 18:15-19:15, eta ostegunetan, 16:15-17:15,

17:15-18:15 eta 18:15-19:15. Haurrek Larrea 20an egingo dute ikastaroa. Urteko kuota 50 eurokoa da (haurren kasuan materiala barne) eta ikastaroak astelehen honetan hasiko dira.

Zaharberritzea eta arte aplikatuak ikastaroa urriaren 24ean hasiko da eta ordutegia asteazkenetan 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara izango da. Urteko kuota 60 eurokoa da.



## Ekin diote bigarren asteburuari

**IRURA** » Berriro ekin diote festei Iruran eta atzo gaztetxoek xare eta paleta partidak izan zituzten. Kalejira ere izan zen buruhandi eta erraldoiekin eta gau partean Play Back jaialdia. Gaurkorako, haur parkea goiz eta arratsaldean, Kanpanolue kale antzerkia, bertso saioa, Oinkari dantza taldea eta Triki Ta Ke taldearen emanaldia izango dute sarriemiletan. I. GARCIA

## Bigarren Eskuko Azoka eta bidegorriaren estreinaldia

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astea dela eta, Ernioaldea Udaltalde 21ek ekitaldiak antolatu ditu asteburu honetarako. Gaur, 10:00etatik 13:30ak arte, Villabonako Berdura Plazan Mugikortasun Iraunkorrekaren lotutako Bigarren Eskuko Azoka egingo dute, bigarren urtez. Azokan, mugikortasun iraunkorrekaren erlazioatutako materialak saldu, trukatu edo oparitu da (bizikletak, trizikloak, patinak, patineteak, kaskoak, mailotak...).

Bihar, 11:00etan, Zizurkiletik Asteasura doan bidegorriaren estreinaldia egingo dute. Herritar guztiek har dezakete parte Zizurkiletik Asteasura bizikletaz egingo den joan-etorrian. Zizurkilgo Pausus Plazatik aterako da martxa 11:00etan. Asteasun hamaiketako egingo dute eta 12:30ak aldera Zizurkilera itzuliko dira. Kaskoaren erabilera gomendatzen dute.

## Irurako nesken pilota eskola berriro martxan jarriko dute

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Irurako Udalarekin lankidetzan, martxan jarriko du berriro ere Irurako Nesken Pilota Eskola. 10-16 urte bitarteko neskei zuzenduriko eskaintza da eta neskek batez ere paletan ariko dira. Iaz dozena bat neska bildu ziren eta benetan gustura amaitu zuten ikasturtea. 2004tik abian den Emakumea Pilotari proiektuaren baitan kokatzen da jarduerak hau ere, eskola kirolaren atalean, hain justu.

Izena emateko epea urriaren 2an amaitzen da eta ikastetxean (eskuorria entregatuta) edo Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioan (943 47 14 63 zenbakira deituz) egin daiteke. Urriaren 8an hasiko dira eskolarekin eta ordutegia 18:45etik 20:00etara izango da. Irurako Udal Pilotalekuan egingo dituzte saioak.



**IBARRA GALTZA KOMIK KOMIKI LEHAKETA 2008**

**SARIAK**

Saria 18 urteik behera:  
Lehenengoa: 400.00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.  
Bigarrena: 200.00 euro.

Saria 18 urteik gora:  
Lehenengoa: 600.00 euro eta argitalpena paperean eta web gunean.  
Bigarrena: 400.00 euro.

**NON ETA NOIZ AURKEZTU LANAK**

Lanak - Galtzaundiko - egoitzan aurkeztu ahal izango dira edo postaz helbide honetara bidaliko dira.

Galtzaundi: Euskara-Taldea  
Ibarra Galtzakomik komiki leihaketa  
Nalanda Etorbidea 6, behea  
20.400 Tolosa (Gipuzkoa)

Aurkezteko epea 2008ko irailaren 26tik azararen 26ra izango da. Sari banaketa abenduaren 12an izango da 19:30etan Ibarra Kultur Etxean.

Leihaketa honi buruzko informazio gehiago lortzeko jarraitu behar duzu modu honetan: gaitzaundi@ibarra.gipuzkoa.eus, 943 655 004 telefono zenbakira, idatzi kultur@ibarra.gipuzkoa.eus web sarru [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com) web gunean.






**E Elkarrizketa**

**ANTONIO ALUSTIZA** › Ardi txakur lehiaketan laugarren



ASIER IMAZ

# «Euskal Herrikoan hutsegite txiki handi bat egin nuen»

**Areso** » Txiki bost urteko txakurrarekin, laugarren postuan geratu zen Antonio Alustiza Euskal Herriko Ardi txakur Txapelketan iragan igandean Atxondon.

**ASIER IMAZ**

Bederatzi bider irabazi du Nafarroako Ardi txakur Txapelketa Antonio Alustizak (Areso, 1954). Iragan igandean, Gorbeia arrazako Txiki txakurrarekin, Euskal Herrikoan laugarren geratu zen. Bihar berri, 11:00etatik aurrera Oñatiko lehiaketan ariko da.

**Nafarroako txapeldun bezala Euskal Herrikora joan eta...**

Euskal Herrikora joan eta porrot. Poliki hasi nintzen baina despiste txiki bat izan nuen, segundo batekoa, gainera neronek izan nuen. Hesian ttak alde egin zuten ardiek eta gero jaitsi eta erditik pasa banituen ere, ez zuen balio izan. Hutsegite txiki handi bat egin nuen.

**Hamaika partaide elkartu zineten Atxondoko Axpe auzoan.**

Nafarroako, Gipuzkoako, Araba-

ko eta Bizkaiko lehenengoa eta bigarrenak joan ginen. Gero, Iparraldekoak eta lehengo urteko txapelduna ere joan ziren.

**Ardi txakur lehiaketa batean hiru proba egiten dira. Zeintzuk?**

Lehenbizi obediencia deitzen diotena: bandera artetik eraman behar da zakurra eta bi aldiz gelditu txistua jotzen dutenean. Gero artaldera sartu behar du zakurrak. Bigarren proban artzainaren ondora ekarri behar du artaldea, gelditu eta gero hesian pasatu. Hirugarren goan ardiak eskortan sartu eta atera egin behar ditu.

**Hirugarrena puntu batera.**

Askotan azken probara lau artzain pasatzen dira baina lehengoan hiru pasa ziren eta ni han gelditu nintzen, 147 puntu nituela. Hirugarrenak 148 zituen.

**Zergatik erabaki zuten hori?**

Mahaiak erabakitzen du hori... Horretaz aparte, nik oso zaila daukat txapela janztea bai Euskal Herrikoan eta baita Oñatikoan ere. Nik ongi egin eta besteek okerrago egin beharko lukete. Igandean ere ikusi zen, lehen hiru zakurrek berdin-berdin egin zuten lana baina batek 62 puntu zituen, Bixkorrek

61 eta nik 60. Orduan, hori nola egiten duten? Ez dakit ba.

**Nola epaitzen dute?**


Nik ere ez baitakit. Guk gure artean hitz egin genuen, ea lan berdin berdina egin eta hori nola zen posible. Bi lehia horietara irabazteko kontuak ahaztuta joaten naiz. Ahal dena egitera eta puntu. Lehengoan egin nezakeen eta pena eman zidan une hartan, gero ia..., niretzako jolas bat da etalisto.

**Txapelketarako entrenatzen al duzu txakurra?**

Etxean egiten dudun lanarekin. Gero saiatzen zara zuzen joan dadila eta horrelakoak, baina etxean egiten dudun lanarekin.

**Lehiarako gaztea ez da komeni.**

Oso gaztea ez da komeni. Asko ibili ezkerre ere ikasi egiten dute eta jabeari ez diote kasu egiten, gauzak bere kabuz egiten hasten dira. Aurreko zakurra oso onan nuen, lehenbiziko bi urteetan ederki ibili zitzaidan baina hirugarren urtean izugarritzko dezeptzioa. Gau eta egun entrenatu nuen. Baina dena ikasi zuen eta di-da di-da bera hasten zen dena egiten, niri ezta kasu ere. Izorratuta nuen lan horretarako, hala ere etxerako balio zuen.



## Piper erreak, merkatuko erregeak

**LEITZA** • Piperrak makinara bota; propano bonbona ur beroz busti, izotzu egiten baita bestela; bueltaka-bueltaka sutan piperrak erre; makinatik baldera; hemendik poltsara eta azkenik eroslearen eskuetara. Ostiralero merkatuan piper erre denboraldia zabalik dago. Nafarroa hegoaldean izotz garaia iritsi arte Leitza egongo dira ostiralero merkatari peraltrrak. Ospe handia dute piper erreek, eta ez Leitza bakarrik, izan ere, atzo hainbat herrietatik etorri ziren erosleak, baita Tolosatik ere. A. IMAZ

**Bai Euskarari Ziurtagiria**  
gu ziur gaude

ziurtagiaren elkartasun  
1.500 erditale (baino gehiago)

**LALBI**  
ALTZARIAK

Salako muelleetan aukera zabala  
Etorri ZUREA diseñatzera

Garzia Goldaraz, 1- HERNANI - Tel. 943 557 154 - Faxa: 943 552 082 - mueblesbalbi@euskalnet.net



## Presoen aldeko giza-katea egin dute

**IBARRA** ● Herriko ezker abertzaleak orain egun gutxi egingako deialdiari jarraituz jende asko bildu zen atzo Ibarren presoen aldeko giza-katea egiteko. Izan ere, hilabeteko azken ostiralaren testuinguruan euskal presoen eskubideen defentsan egin ohi diren elkarretaratzea baliatu nahi izan zu-

ten Udalak presoen senideei bideratutako diru laguntzak kendu izana salatzen. Herriko sarreratik hasi eta San Bartolome plazainoko ibilbidea izan zuten. Era berean, ezker abertzaleak urriaren 2an Subegin egingo den batzarrean parte hartzeko deia luzatu zuen. **R. CALVO**

## Biharko Donostiako derbiaren atzeratzea eska dezakete

**Ibarra** ● Areto futboleko taldearen baja kopuru altua ikusita partidaren atzeratzea eskatzea ari dira aztertzen.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako areto futboleko taldeak, berez, derbia jokatu beharko luke bihar, 12:15ean Donostiako Josean Gasca kiroldegian, UPV-Inter taldearen aurka. Taldeak, hala eta guztiz ere, baja ugari ditu, batez ere pasa den astean Burlataren kontra jokatutako partidaren izandakoak, eta horregatik lehiaketa-batzordeari eskutitz bat bideratzea aztertzen ari dela esan du. Idatzian partidaren atzeratzea eskatuko lukete Ibarraok.

## «Zaldia militarrekin, aberatsekin edo apaizekin lotu izan da beti»

**Bedaio** ● Artubikoeko I. Zaldi Raid Lasterketa antolatuta dute biharko; lasterketa mota honekiko zaletasuna bultzatu nahi dute horrela.

### REBEKA CALVO

Garai batean «azpi zaldia edo monturako zaldia militarrekin, aberatsekin edo apaizekin» lotzen bazen ere, gaur egun joera aldatzen hasia da eta Narciso Arrillaga zaldi hezitzaileak inguruan ikusten duenaren arabera «jende gazte asko hasi da honekin».

Zaletasun hori bultzatu asmoz antolatuta du Artubi Kultur Elkarteak, hain justu, I. Bedaioko Zaldi Raid Lasterketa biharko, non TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ere laguntzaile moduan hartzen duen parte. Goizeko hamarretan hasiko da lasterketa, nahiz eta zaldunek, 28k eman dute izena, 09:00etan egon behar dute bertan



Pasa den ekainean Bedaion eskainitako ikastaroan hartutako irudia. **N. URBIZU**

albaitarien kontrola pasatzeko. Ondoren, 09:45ean, Arrillagak berak eta lasterketa mota honetan aritzen den beste lagun batzuek lasterketaren xehetasunen berri emango die parte-hartzaileei. Pasa den ekainean ere aurrerapen moduko batekin zuten Bedaion proba honetarako nola entrenatu behar den argitzeko.

Zaldi Raiden inguruan zerbait irakurri duenak badaki albaitarien kontrolak ezinbestekoak direla era honetako lasterketetan. Izan ere, Raida erresistentzia lasterketa bat da eta arau jakin batzuk ditu, jakina. «Zaldiak ahal den azkarren egin beharreko distantzia bete behar du, baina arau batzuk bete behar ditu. Zaldia egoera jakin batzuetan iritsi behar da. Nahiz eta zaldi batek irabazi albaitariaren kontrola iristerakoan zaldia errenen bat badu edota ez bada behar bezala indarberritzen, eliminatu egiten da», azaldu du Arrillagak. «40 km arte zaldia albaitariaren-gana eraman behar da eta 56 pulsazio baino gutxiago izan behar ditu eta 80 km edo gorakoetan gehienez 64 pulsazio izan behar ditu», gaineratu du zaldi hezitzaileak.

### Raidaren filosofia

Hauek entzunda argi dago zein den Raidaren filosofia: «Behin lasterketa bukatuta, orduerdi pasata, zaldiak berriz ere irteko moduan egon behar du, lan berdina egiteko moduan ez, behar bada, baina bai lanean jarraitzeko moduan».

Bedaiokoa, hala ere, ez da lehiaketa bat izango bete-betean, «era-

kustaldi bat» izango da, Arrillagaren hitzetan. Zaletasuna bultzatu nahi dute inguruan eta horregatik aurrerapen eta datorren urtean horrelako erakustaldiak egingo dituzte, datozen urteetan benetako lasterketa «ofizialak» egin ahal izateko.

«Bedaion, gure asmoa, jendeari kontrolak nola egiten diren erakustea da. Horregatik ez genuen jende profesionala etortzerik nahi, etortzen badira ondo, baina gure asmoa Raid bat zer den ezagutzen ez dutenei ere parte hartzeko bidea ematea zen. Gu ere horregatik egongo gara han, Raidean ibiltzen garenaz ari naiz, argibideak emateko, zaldiak azkarrago nola indarberritzen diren erakusteko, albaitariengana nola aurkeztu behar diren azaltzeko...», argitu du hezitzaileak.

Eraberean, Arrillagari ikusle bezala lasterketaren zein tokitan jartzea komeni den galdetu diogu eta hezitzaileak «albaitariaren kontrolak pasatzen diren tokian egoeta oso polita» izango dela dio. «Bost zaldi aterako dira batera eta iritsi ondoren, derrigorrezko atsedanaldia pasata, bost horietatik bakarra aterako da lehenik, hamar minuetara beste bat, bost minutetara beste zaldi bat... guztiak atera arte. Eta hau zertarako? Horrela ikusten delako zein zaldi indarberritzen den lehenago. Hor ikusten da zaldi bakoitzak egin duen entrenamendua eta zein gaitasun dituen; bai berezkoak dituenak eta baita entrenamenduek emandakoek ere. Horregatik izango da oso polita albaitariaren kontrolen inguruan jartzea», azaldu du.

Bedaio eskaintzen duen inguru ederrekin eta zaldiekin goiz polita eman nahi duenak, hortaz, I. Bedaioko Zaldi Raid Lasterketa gerturatu besterik ez du.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandean jai. Deitu 650 043 139 telefono zenbakira.

### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan Tolosan, Iba-

rran, Villabonan edo inguruan. 635 712 444.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interes adunetuen deitu: 657 230 011 edo 634 919 482.

**@ Bideoak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren webgunean **Bideoak** izeneko atal berria izango duzu ikus-entzunezkoak ikusteko. Bertan, gai desberdin askorekin lotutako bideoak ikusi ditzakezu. Guztiak Tolosaldekoak eta Leitzaldekoak dira. Kirola, politika, dantzak, jaiak, musika, naiz gauza bereziak aurkitu ahalko dituzu ikus-entzunezko hauean. Guztiira dagoeneko 61 bideo daude ikusgai:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

**E Elkarrizketa**

**GARIKOITZ ALTUNA ETA IMANOL ALTUNA** Erremontistak

# «Biharko partida herrian berezia izango da, ez dugu inoiz jokatu»

**Amezketaketa**» Garikoitz eta Imanol Altuna anaien omenaldiarekin batera pilotalekua ere inauguratu egingo dute, Ergone zena, bazkari batekin eta bertsolariz eta trikiritax lagunduta.



N. URBIZU

**NEREA URBIZU**

Altuna anaiak Amezketan omen-duko dituzte bihar. Horretaz gain, Amezketako Ergone, edo Goiko frontoia inauguratuko dute, Altuna Anaiak izena berriarekin, Imanol Altuna (Amezketaketa, 1968) eta Garikoitz Altuna (Amezketaketa, 1975) erremontisten omenez. 12:30ean Larrunarri pilotaleku estalian erremonte partida bat jokatu dute: Altuna I-Badiola eta Altuna II-Agirrezabala partida ikusi ahal izango da. Amezketarren erremonte lehenengo partida haien herrian izango da.

**Ilusioa egiten dizue frontoia-erak?**

**Imanol Altuna.** Bai, detaile polita izan da herriaren aldetik: kontuan eduki dute hor egon garena urte askotan. Egia esan, gu pilotari frontoi horretan egin gara, horren ondoan bititu garelako. Oso keinu polita da. Hemendik urte batzuetara agian hitz egingo da, esateko: «Hemen Altuna anaiak batzuk izan ziren, erremontistak». Hor geldituko da.

**Garikoitz Altuna.** Alkateak duela bi hilabete-edo esan zigun eta egia esan, hasieran errespetua eman zidan: gauza handia da. Inpresioa ere egin zidan, baina hotzean pentsatuta poza eman digu. Esan bezala, han hazi gara, han lehenengo pilotakadak eman genituen. Ohore bat da, eta gutaz gogoratzen direla ikusi da. Aintzathartu gaituzte eta gauza polita da hori. Beti han izan gara, ordu batzuk sartu ditugu bertan.

**Beraz, ez zenuten espero?**

**G. M.** Inondik inora, ez. Sorpresa izan da. Gustura hartzen da eta asko eskertzen dugu.

**Hor hazi zaretela aipatu duzue.**

**I. M.** Larrunarri behintzat ez, hori berria da, nolabait esateko. Erremontean 19 urterekin hasi nintzen, profesional mailan eta frontoi hori ez zen guretzat existitu. Eskuz plazakoan, zaharrean bai. Ergoneko frontoian pilotan, futbole... Bigarren etxea zen.

**Gustatu al zaitzue Altuna Anaiak frontoia?**

**I. M.** Polita dago, bixi-bixia. Beharrezkoa zuen gainera aldaketa bat, oso polita geratu da. Bizi guztian ezagutu dugu frontoia eta txiki-txikitatit erabili dugu.

**G. M.** Oraindik ez dut dena bukatuta ikusi, baina polita dago. Kolorarekin eta... oso-oso polita. Gainera eskola ondo-ondokoa da eta erabilpena emango diote bertako umeek. Orain kristalarekin ere estalita dago, eta frontoiaz gain, aterpe edo estalpea ere izan daiteke, ixkinetatik euria ez delako sartuko.

**Erremontean ez zineten ibiliko.**

**I. M.** Ez, txikitik ez behintzat. Pilotaleku hori ez genuen erremontean aritzeko erabili. 16 bat urterekin Tolosan hasi ginen erremontean seriozki ikasten eta gero Amasara ere joaten ginen batzuetan. Gogoa dut gure lehengusu batek saski txiki bat oparitu zidana 10 urte ni-tuelaz; batzuetan jolastu izan nuen, baina 16 urte arte bazterrean izan nuen gehienbat.

**G. M.** Ni txikitik noizbait ibiliko nintzen erremontean, baina gutxi. Bestela, eskuz, erraketaz edo palaz. Baina beti frontoian, jaiki ordurako frontoira joaten ginen, lagunak han biltzen ginen.

**Amezketan erremontean ariko zaretzen lehenengo aldia izango da, orduan?**

**I. M.** Bai, ez dugu inoiz jokatu bertan. Larrunarri ez da orain arte frontoi egokia izan erremontean aritzeko. Orain dela gutxi frontoi motzetan ere hasi ziren erremontea jokatzeko, eta horrela ariko gara. Amezketan esango nuke behin ere

ez dudala ezta entrenatu ere erremontean.

**G. M.** Eskuz jokatzeko pilotaleku polita da. 10 koadro dauzka eta frontoi motza izatearekin, erremontean frontoi berezi hauetan aritzeko materialarekin ariko gara. Ikusi da frontoi txikitik ere partida biziak eta politik ateratzen direla, beste herrietan aritu izan garenen, esaterako.

**Amezketan eskuzko pilotarekiko zaletasun handia dago. Eta erremontearrekiko zaletasuna nola ikusten duzue?**

**G. M.** Zaila da, Amezketako ume-

ek erremontea ikusteko Galarretara joan behar dutelako. Kirol honeko pilotariak jendeak ez ditu gehiegi ezagutzen eta herrian bertan ez baldin badu ikusten erremontean jolasten, zaila da zaletasun hori sortzea umeen artean.

**G. M.** Gure jarraitzaileak baditugu herrian. Beti izan da Galarretara joan den jendea gu ikustera, baina jokalariek ez, gu gara bakarrak eta azkenekoak. Lagun batzuek ere jolastu zuten baina utzi zuten. Baina erremontea nire ustez beti izan da gustukoa Amezketan, jarraitu izan

digute. Baina dudarik gabe, erremontearrekiko baino, eskuarekiko afizio gehiago dago.

**Berezia izango da Amezketako partida?**

**I. A.** Berezia izango da. Pilotaleku motzetan ez gaude luzeetan bezain ohituak jokatzeko, baina horrelako egun berezietan polita da. Gainera, biharko partida ez da txapelketakoa izango, presio gutxiagorekin jokatu dugu, eta partida polit bat egingo da. Gainera, erremontean jokatzeko inoiz ikusi

**Datorren azaroaren leian erremonteko profesionalen mailan 21 urte egingo nituzke**

ez gaituen jendea egingo da. 200 bat lagun joango dira bazkaria eta pentsatzen dut partidara hurbilduko direla. Ilusioa egiten du, ikusten delako jendeak ondo hartu duela. Biharko eguna festa egun bat bezala hartuko du.

**G. A.** Berezia izango da. Bihar ere partida polita egitea espero dugu. Dudarik gabe, berezia izango da eta Amezketan nobedadea. Pentsatzen dut 40 tantora izango dela. Jendearentzat gustura egoteko aukera izango da.

**«Imanol I.a erretiratu behar da».**

**I. A.** Bai, pena ematen dit baina hala da. Azaroaren leian 21 urte egingo nituen profesionalen mailan. Enpresaren erabakia izan da, eta nik bezala beste hiruk utziko dugu kirol hau profesionalen mailan (Zalakain tolosarra, Bitoria eta Eizagirre). Gazteei lekua egin behar zaie. Horrela gertatu da eta hala hartu behar dira.

**G. A.** Kolpe handia izan da, ez nuen nik espero aurten. 13 urtetan berarekin egon naiz, eta orain ez da egingo, hutsunea somatuko dut, baina gauzak horrela etortzen dira...

## Ergone, Altuna Anaiak bihurtuta

**N. URBIZU**

Amezketako Udalak Altuna I. eta Altuna II. ari omenaldia egiteaz gain, Ergone edo Goiko frontoia bezala ezagutzen dena inauguratuko dute bihar. Zumadi eskolako haurrek erabiltzen duten pilotaleku berriaren izena Altuna Anaiak Frontoia izango da.

12:30ean erremonte partida izango da Larrunarri pilotalekuan. Ondoren kalejiran Ergone frontoi eraberritua joango dira eta inauguratu egingo dute. 14:30ean frontoi berri honetan bazkaria egingo dute, 200 lagundik gora batuta.

Bazkaldu ondoren bertsolariak ariko dira. Bixente Gorostidi eta Unai Muñoa bertsolariek alaituko dute mahaiaren buelta guztia. Trikitilarien saioa ere ez da faltako.



Ergone edo Goiko frontoia berri hau da. HITZA





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Santa Maria parrokiak esker ona eta agurra adieraziko dio Imanol Aldaregia parroko ohia 19:00etako elizkizunean. Ondoren, parrokiako aretoan, mokadutxoak izango da.  
■ **Tolosa.** *Tolosa Kantari* egongo da Alde Zaharreko kaleetan, 12:00etatik aurrera, Tontokalen elkartuta.  
■ **Ibarra.** Bizi nahi elkartearen jaiak: 11:30ean toka txapelketa, ondoren tomate eta lbarrako langostinoaren dastaketa, 18:00etan haur jaiak eta ondoren txokolatada izango da.

### Kultur asteak

■ **Bidegoian.** Marrazki lehiaketa 15:00etan izango da haur eta gaztetxoentzat. Ondoren, 17:30ean Angel Magoaren saioa izango da. Bukatzeko txokolatada egingo dute bertan, Bidaniako frontoian.

### Ikuskizunak

■ **Tolosa.** *Lamien basoa* dantza ikuskizuna, Gero Axular dantza taldeak antolatuta, Aspanovas Elkartearen aldeko emanaldia Leidor aretoan 17:00etatik aurrera.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Oier Gastesi Tolosa.** 1, 2, eta 3 tinkada goxo bidaltzen dizkizugu zure egunean. Muxutxo handi bat. Aupa txitxo!



## Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai

**TOLOSA** • Lau hamarkada beteko ditu aurtin Abesbatza Lehiaketak. Urteroko kalitateari eutsiz, berezia izango da, beraz, aurtengoa. Ez baitira alferrik 40 urte betetzen. Motorrak berotzen hasteko egun guztietan lehiaketaz gozatu ahal izateko abonoak salgai jarriko dituzte urriaren lehen, asteazkena. Urriaren 10era arte izango dute interesatuek hauek erosteko aukera. Ohiko sarrerak, berriz, urriaren 17rako egongo dira lehiatilan. Aurtengoa lehiaketari urriaren 29an emango diote hasiera, asteazkenarekin. Ohi bezala, igandean amaituko da, azaroaren 2an, sari banaketarekin eta abesbatza guztien arteko bazkariarekin (Irudian, iazko irabazleak). Datorren asteburuan, haatik, ahots gozoen lehen oihartzunak entzun ahal dira Tolosan, izan ere, larunbatean, San Frantzisko elizan jendaurrean aurkeztuko dute Abesbatza Lehiaketa, jaialdia iragarriko duen kartela barne. Aurkezpenaren baitan Hodeiertz Abesbatzak emandaldi berezia eskainiko du. Tolosako taldea aurtin ere zilarrezko ezteiak ospatzen ari da eta, beraz, ikuskizun gomendagarria izango da. A. OTEZABAL

**Bat** Mekanika eta Karrozeria

Suspentsiotan, direkzioan eta balaztetan espezializatuak gara

Tel.: 943 69 22 05 • IRURA

**Joxean**

- iturgintza
- berokuntza
- aire egokituak
- gasa
- inst. industrialak

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei!

Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808

EUSKAL HERRIA

**Basatia**

NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

Eskura ezazu berriekin

IRAILAK 27

LEHENA DOAN!

KARPETA OPARII

6 liburuki

Itsasertza, Basoak eta ibarrak, Labarrak eta haizarteak, Tontor nagusiak, Ibaiek eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlasak

berria